

		BALIO ETIKOAK			
Irakasleak	Karmele Valencia	Maila	DBH	Ikasturtea	2024-2025
HELBURU OROKORRAK					
71/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.					
EDUKIAK ETA DENBORALIZAZIOA					
1. EBAL		2. EBAL		3. EBAL	
Autoezagutza.		Harremanak eta arau moralak.		Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala.	
Nerabetasuna: identitatea eta pertsonalitatea.				Etika zientzian eta teknologian.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK					
1.1. Norberaren kontzeptu doitua eraikitzea eta adieraztea, izaeraren eta nortasunaren dimentsioak onartuta, eta alderdi zibikoa eta morala aintzat hartuz, giza izaerari buruzko askotariko ikuskerei buruzko ikerketatik eta elkarrizketatik abiatuta. 1.2. Ideiak, emozioak, afektuak eta desioak identifikatzea, kudeatzea eta komunikatzea, beste pertsonak ulertuz eta haiekiko modu enpatikoan jokatzuz, autoestimua adieraziz eta kontzeptu egokia partekatuz pertsonen arteko harremanek (esparru afektibo-sexualekoak barne) izan behar dituzten ezaugarriak buruz. 1.3. Autonomia morala garatzea eta erakustea deliberazio arrazoitua baliatuta, kontzeptu etikoak erabiliz eta errespetuz hitz eginez beste pertsona batzuekin zenbait balio eta bizimoduei buruz. Orobat, honako gai hauei lotutako arazoei buruz ere hitz egingen da: eskubide indibidualak, sareen erabilera segurua eta arduratsua, adikzio jokabideak eta eskola jazarpena. 2.1. Bakea, errespetua, demokrazia eta guztion ongiarekiko konpromisoa oinarri dituen elkarbizitzaren arabera jardutea eta hura sustatzea, gizakiaren izaera sozialari eta politikoari buruzko ikerketatik abiatuta, eta modu kritikoan erabiliz eta ulertuz kontzeptu hauek: legea, boterea, subiranotasuna, justizia, Estatua, demokrazia, memoria demokratikoa, duintasuna eta giza eskubideak. 2.2. Ikasleak bultzatzea herritar aktibo eta demokratiko gisa jokatzera, mugimendu asoziatiboa ezagutaraziz eta taldean errespetuz, elkarrizketaren bidez eta modu eraikitzailean parte hartzera bultzatuz. Taldeko jarduerak horietan, hain zuzen, erabaki kolektiboak hartu beharko dituzte, ekintza koordinatuak planifikatu eta arazoak ebatzi, prozedura eta printzipio zibiko, etiko eta demokratiko esplizituak aplikatuta. 2.3. Guztion ongiaren aldeko konpromisoa sortzen laguntzea, puri-purian dauden gai etikoak aztertuz eta horien gaineko iritzia emanez modu arrazoituan eta elkarrizketaren bidez; gai horietako batzuk dira, besteak beste: desberdinkeria eta pobrezia aurkako borroka; lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta justiziarako eskubidea eta ikerketa zientifikoaren xedeak eta muga etikoak. 2.4. Genero-berdintasun eraginkorraren aldeko borrokaz eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta esplotazioaren arazoak jabetzea, feminismoaren olatuak eta korronteak eta generoan eta sexu-orientazioan oinarritutako desberdintasuna, indarkeria eta diskriminazioa prebenitzeko neurriak aztertuz, LGTBI+ eskubideen ezagutza erakutsiz eta eskubide horiek errespetatzeko beharra aitortuz. 2.5. Modu aktiboan laguntzea gizarte ongizateari, iritzi propioa, esplizitua, informatua eta etikaren aldetik oinarritutako erakutsiz honako alderdi hauei buruz: giza eskubideen balioa eta pertinentzia; aniztasun etnokulturalarekiko errespetua; balioa aitortzea ondasun publiko globalei eta zergen balio sozialari antzematea. 2.6. Mundu justuagoa eta baketsuagoa eraikitzen laguntzea, gure herriaren historia demokratikoa eta zuzenbide estatuaren eta haren instituzioen, nazioarteko erakundeen, elkarte zibilen eta Estatuko segurtasun kidego eta indarren funtzioak aztertuz eta aitortuz, bakea eta segurtasun integrala lortzeko, indarkeriaren biktimei arreta emateko eta pertsonen eta herrien arteko elkartasuna eta lankidetzat sustatzeko ahaleginean.					

3.1. Gure bizitzen eta ingurunearen artean dauden harreman historikoak (interkonexioa, interdependentzia eta ekodependentzia) deskribatzea, abiapuntutzat hartuta ukitzen gaituzten arazo ekosozial larrienen kausa eta ondorioen azterketa.

3.2. Klima larrialdiari eta ingurumen krisiari aurre egiteko planteamendu zientifiko, politiko eta etikoak baloratzea, horien gaineko argumentuak azalduz eta eztabaidatuz.

3.3. Garapen jasangarriarekin etikoki konprometitutako bizimoduak sustatzea, honako hauek norberarentzat ez ezik ingurunerako ere onuragarriak direla ulertuta: hondakinen prebentzioa; baliabideen kudeaketa jasangarria; mugikortasun segurua, jasangarria eta osasungarria; bidezko merkataritza; kontsumo arduratsua; natura ondarearen zaintza; aniztasun etnokulturalarekiko errespetua eta animalien zaintza eta babesa.

4.1. Norberaren eta besteen emozioak, estimua eta zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak modu asertiboan identifikatuz, aztertuz eta adieraziz, eta besteenak ezagutuz eta baloratuz hainbat testuingurutan eta sorkuntza-jarduerekin eta gai etiko eta zibikoei buruzko banakako edo elkarriketa bidezko gogoeta-jarduerekin lotuta.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK ETA GAINDITZEKO GUTXIENekoAK

AZTERKETAK

Ikasleek ez dute azterketarik egingo, proiektuak egingo dira eta bakoitzak bere balioa izango du. Batean 5 baino gutxiago aterata ikasgaia suspendituko da.

JARRERA ETA KLASEKO LANAREN ALDETIK

Ekoizpenak: %60

Jarrera eta lana: %40

EBALUAKETAREN NOTA

Ebaluazio bakoitzeko nota landuko diren ikas egoeren batezbesteko notak osatuko du. Ikasleren batek ikas-egoeraren bat suspenditzen badu, lan edota azterketa bat egin beharko du unitate hori berreskuratzeko.

Azken nota hiru ebaluazioen batezbestekoa izango da. Azken hiruhilekoan ikasleren batek ez badu gainditzen unitateren bat, ohiko ebaluazioan lan edo azterketa egin beharko du eta suspenditzne badu, lan bat egin beharko du azken ebaluazioan.

***OHARRA:** Taldearen beharren arabera kalifikazio irizpideak eta edukiak alda daitezke eta gaitasunen bat garatu gabe gera daiteke.